• BERBETAN INES SESMA GILTZURRUN TRASPLANTATUA
• GEHIGARRIA GAZTIA NAIZ BARREN • KIROLA AIRE LIBREKO IGERILEKUEN IREKIERA

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA • 2002ko ekainaren 14a/X. urtea/409. zkia




## Negutegia eraiki dute Cuscon Misqui Taldearen dirulaguntzaz

# "Elgoibar" negutegia Perun

POBREARI EMATEA, ZERURAKO AURRERATZEA (esaera zaharra)

OIN BERRI



**Asier Arzamendi**
**133 kalegiatu zenbakia**





## Tratamenduak:

- Oinaren azterketa informatizatua
- Plantilen egokitze zuzena
- Oin azaleko arazoak: *Kalluak, gogortasunak papilomak, onddoak...*
- Oin diabetikoa
- Kirol podologia








**ERMUAN** Astelehena eta asteazkena
pizkaia etorbidea 9:00-13:30
San Inazio,44 15:00-19:30
943 17 11 35

**ELGOIBARREN** Asteartea eta ostirala
Errosario kalea, 25 9:00-13:30
tel.: 943 74 17 95 15:00-19:30
Larunbatetan 10:00-13:00

***Mobila: 653 18 48 86***



## Tarteka, geratu

Bernardo Atxagari eman berri diote Eusko Ikaskuntza saria. Bernardok gauza politak idazten ditu. Eta Bemardok gauza politak esaten ditu, esan bai. Badira matematikaz asko dakitenak baina bi gehi bi zergatik lau diren azaltzeko kapaz ez direnak. Edo musika sortzen maisuak direnak baina abesteko batere gaitasunik ez dutenak. Atxagak bai, bera idazlea da, idazle ona gainera. Eta kornunikatzailea ere bada, hizlari bikaina. Gauza politak esaten ditu. Entzun diodan azkena honakoa izan da, "Eskuartean daukadan liburua idazten amaitzen dudanean, geratu egingo naiz. Geratu eta pentsatzeko beharra daukat". Arrazoi osoa dauka. Behin baino gehiagotan esan digute ibiliaren ibiliaz egiten dela bidea, edo biderik luzeena egiteko ere lehen pausoa beharrezkoa dela, kontua parte hartzea dela... Eta bai, hala da, baina iruditzen zait ahaztu egiten zaigula geratzeak ere baduela bere garrantzia. Askotan norabidea zein den jakin gabe egiten dugu aurrera, harri artean, ostikoka, inolako orekarik gabe. Zertan eta zergatik ari garen ez dakigu, baina berdin zaigu, martxan egotea bizirik sentitzea balitz bezala.

C.) Cf) (1) O O

**"Zertan eta zergatik ari**
**o garen ez dakigu, hair⁻"--**
**C.) zaigu, martxan egotea**
**sentitzea balitz bezala"**

Atxagak asko daki. Eta tarteka geratzen ere ikasi behar dugula azaldu digu. Geratzen, eta pentsatzen, irakurtzen, ikasten, entzuten, hausnartzen, gure konklusioak ateratzen... Geratzen jakin behar dugu, eta geldi gaudenean barrua betetzen. Bideari berriro heltzen diogunean, askoz gehiago izango dugu emateko.

Jasone Osoro



## Joku bikoitza

Batasunaren ilegalizazioa bazterrak astintzen ari da. Eragile politiko, sindikal, sozialak eta erlijiosoak ondo baino hobeto konturatu dira PPk daraman bideaz eta erantzun beharrean aurkitu dira. Ikusten ari garen erantzunetan bada datu deigarri bat: hainbat eragile Batasunaren ilegalizazioaren aurka azaltzen dira baina ez dute berarekin inolako harremanik nahi, ez dute berarekin (lbarretxe) hitz egin nahi ere. Beste batzuk harreman politikoa ukatzen diote, adostasun politikoetatik (EA, Aralar, Zutik, Batzarre, AB) baztertu egiten dute. Benetako apartheid politikoa burutzen ari dira Batasunarekin. Dena, esaten dutenez, ETAren borroka armatua gaitzesten ez duelako, biolentzia arbuiatzen ez duelako. Zergatik jartzen dituzte baldintza hauek guztiak mahai gainean Batasunarekin hitz egiteko eta ez, adibidez, PSOErekin hitz egiteko? edo PPrekin? Zergatik ez diote PSOEri GAL gaitzesteko baldintzarik jartzen? Edo PPri 1936ko afixamenduaren gaitzespena? Edo torturen gaitzezpena? edo dispertsioarena? Edo burutzen ari den genozidioaren gaitzezpena? Joku bikoitz horren atzean beste era bateko arrazoiak topa daitezkelakoan nago: Ezker Abertzalearen ahultasuna bilatzea, bere botoen erakarri nahia... PPren neurri politikoek demokrata abertzale guztion erantzuna behar du. Epe motzean baditugu Aznar eta bere enparauei ozenki adierazteko bi aukera paregabe: larunbat honetan Bilbon egingo den manifestazioa lehena eta ekainaren 19an sindikatuek konbokatu duten greba orokorra bigarrena. Jarrerak argitzeko tenorea da. Ea herri interesak beste edozeren gainetik jartzen diren!

Pello Mendizabal

Kexak ........................................ 5
MOtZ MOtZ ........................................ 6
gehigarria ........................................
kiRolAk ........................................
aGenda ........................................

## ITZULIAREN KOSTUARI BURUZ EGINDAKO GALDERARI ERANTZUNA

Oraintsu izan dugun Euskalerriko Txirrindulari lasterketako itzuliaren bukaera dela-eta, Elgoibarren bizi izan genuen aparteko egunaren oroitzapena oraindik gogoan dugula, orain dela gutxi BARRENeko orrialde hauetan, elgoibartarrontzat txirrindu froga horrek ze kostu duen galdetuz idatzi zuenari erantzun nahi diot. Uste dut lasterketa horren antolakuntzarako Elgoibarko Udal aurrekontutik hartutakoez arituko zela, bada, erantzuna argi dago: zotzik ere ez.

Era honetako etapa batek duen aurrekontu osoa, hau da: Euskalerriko Txirrindu Itzuliaren antolatzaileek ordaindu beharreko 55.773 euroko kuota (9.279.000 pezeta inguru, BEZ barne) eta antolakuntzaren ondorioz sortzen direnak (aseguruak eta boluntarioentzat ekipoa, ea.), kirol ekintza handi honen ospakizunerako hogeiren bat enpresek esponsorizatu eta lagundu duten aportazioari esker izan da. Aportazio handi hauek, benetan eskertzen ditudanak, alkatetza honek lortu ditu eta horretarako, ni neuk bisitatu ditut banan-banan enpresa horiek.

Hori horrela, ez dago guk Elgoibarren eratu dugun eran ordaintzeko inongo beharrik. Izan ere, ez da isilekoa esaten badut horrelako antolakuntza bat dagokion Udalak bereziki ordaintzen duela (ez da beharrezkoa nortzuk egin duten esatea), kontutan izanik herriaren irudia bultzatzen dela horrela. Egia da kanpora bultzatzeko aparteko modua dela eta horren lekuko izan da Elgoibar.

Laburtuz, lerro hauen bidez zuzenean erafitzuten diodan galdera egindako pertsona horri: elgoibartarrei froga hau zenbat kostatu zaie? Ba berari zerga ordaintzaile gisa ez zaio txikitarik ere ordaintzea tokatu, baina horrek ez du esan nahi guzti hau "doan" izan denik. Baina badaude 200 boluntario inguru, eguraldi ezin txarragoarekin, tinko, lasterketaren antolakuntzan Iagundu zutenak: Lagun Taldekoak eta Gure Bide Elkartekoak, Udal zerbitzuko langileak, adibidez, Udal lantaldekoak edo Udaltzaingokoak, beste askoren artean, horiei bai kostatu zaiela froga hau. Ahalegin handiak, dedikazioa eta ilusioa, eta hori ezin da zenbatu aurrekontu batean, eta horiei esker antola daiteke horrelako gertakizun bat. Guzti horiei nire eskerrik beroenak.

Gillermo **Garate Urzelai**
**Alkatea**

tec.izen-abizenak, NAN eb telekno zkia

## Urruzunoren
## begi ezkutua
### Izadi gurea



"Guerra entre barrios" zena, n m bihurtu zen. Antzinean arrazakeriarik ez zeuden tokietan bizitzen ziren jupiterriarrak, -arrak, arrak zinezelakotz. Europa deskubritu zutenean, omen ziren zuzendu Martitzera, skorpionez beterik zegoen lurra. Han, izadi, gurearena, horoskopoa ezagutu eta gero, lurrera, esanda izadi gurera etorri ziren. Dinosauriorik ez zeuden harrezkero, eta harrezkeroztik, gudu, parreak eta "irtzislak" egin eta gero sistema solarraren pakea lortu zuten. Beteljusetik, gure unibertsoaren atalaiatik "juni" edo satelite horietako bat bidali eta gero; horregatik hau da ordua esateko: gora euskal mundua eta gure bidezubitarrak.

**Joseba Esnaola**

## OKERRAK ZUZENTZEN:

Pasa den asteko BARRENen, euskaltegiei buruzko gehigarrian hankasartze bat izan genuen. Mila Aranori egindako elkarrizketa "euskaldundu diren erdaldunak" atalean ipini genuen eta, kasu honetan, "ALFABETATU DIREN EUSKALDUNAK" behar zuen. **Barka** hutsegitea.

ASTEKARIA
# BaRRen

Nalarroa enparantza, 2
20870 ELGO113AR
tr 945 74 41 12
Pubtiztlatea:
it 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagurtea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.comibarren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

**LAGIRMAILEA** Elgoibarke Udara **ZUZENDARLA** Jon Inaki Lasa KAZETARIAK hati Agirreazakiej, Asier **Oft1Da PLIBLIZITAWA** Amaia Erkizia MAkrrsrouuts Iker Diego **ACIINSTRAII/CA** knaia Rodrigez **GtRalitaA** Jon Peli Uriguen **KOLAWRATZAILEAK** Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, kberto Ansualegi, Edume Hilhao, Gotzon Arriete, Lorea Perez de kbeniz, Jokin Marrinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Ainhoa Andonegl, Kokoe K,E. ela Urruzuno L.T. **AZALEKO ESAERA ZAHARRA** Golzon Garateren liburulik **114PRIMATE011** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.025 ale Leor poeusiLuA GE-1,038192 **ISSN** 1139-1855

EIGOIHARK(9ZARIA
xvrxuc

*Elgoibarko Udalak, Euska Jaurfaritzaka Kultura* Sadak eta Foru Aldundiak *diruz lagutzdutako* aldizkaria.

kutxa
xeri esker

-DANOBAT
N.111.5
GOITI
ORLIP9 DANOBAT
ESTARTA
GRUPO DANOBAT

2002-VI- 14

## KEXAK

• Emakume batek adierazi digunez, **Pedro Migel Urruzuno kalean kontenedore falta** dago. Taberna eta denda gehiegi dago kale horretan, eta zabor guztia San Frantzisko kalean botata gelditzen da.



• **Santa Klarako parkeak oso egoera txarrean daudela** adierazi digu gazte batek. Txirristada apurtuta dago, eta ez dago ganorazko kolunpiorik. Etxe berriak egin dituzte, baina parkerik ez.



• Larunbat arratsaldero mezatara joaten den batek, **parrokiako erretaula oso gutxi argiztatuta** egoten dela adierazi digu. Erretaulan ez omen dute argirik pizten, eta oso itxura tristea ematen dio elizari.

• **Urasandiko** emakume batek, goizeko 02:00etan lanetik etxeratzen denean, **ez duela aparkalekurik topatzen** esan digu. Behin oinezkoen pasabidean bakarrik aurkitu zuen aparkatzeko lekua, eta goizeko 9:OOetan multa zeukan. Erreklamatzera joan zenean, ordu erdi itxaron ostean sargentua ez zen agertu. Urasandin bizi den udaltzain batek egunero aurkitzen omen du aparkalekua. Emakumeak esan du, berari esateko non aparka dezakeen.

• Emakume talde batek **babes ofizialeko etxebizitzen zozketa dela-eta, elgoibartarrek lehentasuna izan beharko luketela** adierazi digute. Kanpoko jende askori tokatu omen zaio etxea, beraz, hurrengo baterako kontuan eduki dezatela.

## TZA1©111

• **50 urte bete zituztenek** egun oso polita pasatu zuten, eta **antolatzaileel** eskerrak eman nahi dizkiete.

• **Herri Eskolako gurasoek irakasle eta ikasleak** txaIotu nahi dituzte eskaini zieten jaialdiarengatik.




Atal honetan kexa, txalo edo galdera argitaratzeko bidali posta elektronik izena eta zure telefono zenbakia zehaztuz, barren@topagur▶ea.com, helbidera.

# Cuscrl amEtsak Egi bihurtut

*Hiru hilabete pasatu ditu Gemmak Agirregomezkortak Cuscon. Lan asko egin dute Misqui elkartearen izenean, eta oso pozik etorri da. "Aspalditik ari ziren negutegi baf eraiki nahian, eta azkenean lortu dugu". Familia ikusteko gogoa zeukala adierazi digu Gemmak, baina ahal duen bezain laster, bueltatuko omen da berriz Peru aldera. Pare baf aste daramatza Elgoibarren, eta jadanik aspertu dela adierazi digu. "Gauza asko ditut egiteko hemen ere. Aurtengo kanpaina jarri behar dut martxan, baina aspertu naiz dagoeneko".*



Duela bi urte joan zen Gemma Iehenengo aldiz Cuscora, eta bertan aurkitu zuen egoera ikusirik, lanean hasi zen. "Sekulako beharra ikusi nuen, eta ni ezin naiz geldi egon". Berak bakarrik ezin zuen lan guztia egin, eta alde batetik bestera laguntza eskatzea erabaki zuen. "Jendea kokoteraino egongo da nirekin, baina dirua lortzeko laguntza behar dut". Misqui elkartea sortu zuen iaz. Bost pertsonek osatzen dute elkartea, eta Gipuzkoa osoan aritu dira diru eske. 3 milioi lortu zituzten iaz, eta horri esker, amets ugari errealitate bihurtu dira Cuscon: "Peruko jendeak ezin du ulertu bost pertsonak osatutako talde txiki batek, nola egin dezakeen hainbeste lan. Elgoibarko jendeari ere eskerrak eman behar dizkiot, asko lagundu baitidate"

Urrutira eraman du Gemmak Elgoibar. Gure herriaren izena jarri dio Cuscon eraiki duten negutegiari, eta bertan esaten zutenez, "oso gustora egoten da Elgoibarren". Gauza asko lortu ditu Gemmak bi urte hauetan, baina berak esan digunez, garrantzitsuena negutegia izan da: "Negutegi honi esker, jantokira joaten diren ume guztiei jaten ematea eta elikagaiak lantzea lortuko dugu". Peruko jendea harrituta geratu omen da Gemmak egindako guztiarekin. Ez dute ulertzen pertsona batek ezeren truke hainbeste lan egitea: "Jende gehiena interesarengatik joaten da Perura, eta nere jarrerarekin harrituta gelditzen dira".



Datorren urteko otsailean berriro bueltatuko da Gemma Cuscora, baina lan handia dauka bertara joan aurretik. "Pare bat hilabetez deskantsatzeko asmoa neukan, baina ezin dut. Aurtengo kanpaina jarri behar dut martxan, datorren urterako dirua lortzeko" .Gemmak esan digunez, 5 milioi lortzea da kanpaina honen helburua: "Zaila izango da, baina jendearen laguntzarekin lortuko dugu". Tetebistaren baten laguntza izatea gustatuko litzaioke. Telebistan agertzeak ez omen dio grazia handirik egiten, baina helburua ona dela jakinda ahalegin bat egingo du Euskal Heffi osotik laguntza lortzeko.

Gemmak ez du sekula ahaztuko Cuscon bizi izan duena. "Sekukko maitasuna eskaini didate. Opari pila bat egin dizkidate, eta azken egunean negar ugari egin zuten". Trapuzko panpin ugari ekarri ditu Gemmak. Denak eskuz egindakoak dira. Batzuk banatu egin ditu, baina soberan gelditzen zaizkionak ostegunetan saltzeko asmoa dauka.

## Misquik egindako ekintzak

) 500 metro karratuko "Elgoibar" negutegia.
) 46 haurrentzako eskola matrikula, uniformea eta eskola materiala ordaindu dute eskola publikoan.
) 4 haurrentzako matrikula, uniformea, eskola materiala eta 10 hilabetetarako ordainketak eskola pribatuan.
Bi espezializazio kurtso tailerreko irakasleari.
Unibertsitate irakaslea.
O Unibertsitatera sartzeko matrikula eta laguntzak bi ikaslerentzako.
(D "Club de Madres Sa Rosa" elkarterako josteko makina industriala, haria, urtebeterako josteko irakaslea, hiru hilabetetarako bordatzeko irakaslea.
Cuscoko itsuen elkarterako fotokopiagailua.
) Gazteen artisautza enpresarako lan tresnak.
O Santiago auzoko futbol taldearentzat jantziak.
) Behartsuenentzat elikagai eta jantziak.
Elgoibarko botikek eta osasun zentroak emandako sendagaien banaketa.





## Gemmak egindako ekintzak

O 32 haur bataiatu ditu.
) "Madres de Calcuta" erakundearekin, kaleko umeei txokolatea banatu.
Drogomenpekotasunaren prebentzioan aritzen den talde holandar batekin egin du lan, bertako gazteen arazoa konpontzeko.
Belen auzoko Lorena ospitala: HIESA duten pertsonentzako ospitala da. Gaixo hauek Perun ez daukate tratamendu berezirik.
) Enciano futbol taldea amadrinatu du. Lehenengo mailan dagoen taldea da, eta Libertadores Kopan sekulako maila erakutsi du. Talde osoa jantzi du goitik behera.

## Maria Eugenia Conzalez: "AHAL DUOAN BEZAIN LASTER, BESTE UME BAT AMADRINATUKO DUT"



Gemma eta Misqui elkarteari esker, elgoibartar askok hirugarren munduko haurrak apadrinatu dituzte. Maria Eugenia Gonzalez da horietako bat, eta berak esan digunez, "esperientzia izugarria izan da". Betidanik izan omen du ume bat amadrinatzeko gogoa, eta azkenean Gemmaren bitartez lortu du. Elisabeth izena du umeak, eta 8 urte beteko ditu aurten. Maria Eugeniak esan digunez, haurrarekin harreman estuagoa izatea gustatuko litzaioke, baina momentuz ezinezkoa omen da: "Umea hona ekartzea gustatuko litzaidake, baina oso zaila da. Nire etxean ez daukagu lekurik, eta psikologikoki ere nahi gogorra izan daiteke". Perura joatea izan daiteke beste aukera bat, baina Maria Eugeniaren hitzetan, "oso garestia da, eta gauzak ez dira hain errazak"

Maria Eugeniak umearekin hitz egiteko aukera izan zuen Gemmari esker, eta sentitu zuena ezin omen da hitzekin azaldu: "Oso polita izan zen, eztarrian sekulako korapiloa jarri zitzaidan eta emozionatu egin nintzen". 3000 pezeta ordaintz.en ditu hilero, eta esperientziak benetan merezi duela adierazi digu: "Ahal dudan bezain laster beste ume bat amadrinatuko dut". Maria Eugeniak jende guztia animatu nahi du umeak apadrinatzera: "Sentimentu hori barnean eduki behar da. Diruagatik ez balitz, askoz ume gehiago amadrinatuko nituzke".

# Elgoibar Eibarrren gainetik jarri da azken hamarkadan industria enpleguari dagokionez

## 3.349 langile daude industria sektorean Elcoibarren

Debegesak Debabarreneko azken 10 urteetako industriaren garapena ikertu du. Beste ondorio batzuen artean atera duten emaitzetako bat Elgoibarrek industria arloan Eibarri aurrea hartu diola izan da. Arlo honetan Eibarrek %34ko jaitsiera zan du, eta horren arrazoietako bat lur industrialaren beharra izan da. Honela, Eibarko enpresa askok Ermuara eta Mallabira aldatu du egoitza eta Elgoibarko zenbait lantegik Deba edo Itziarrera. 2000 urteko datuen arabera Elgoibarren 133 enpresa zeuden eta langile kopurua 3.349koa zen. Eibarren, aldiz, enpresa kopurua handiagoa izxan arren (213) langileak 3.102 ziren.

Makina erreminta nagusi

Jos teko makinak fabrikatzeari utzitakoan Elgoibarrek industria lanean beherakada izan bazuen ere, oraindik garapena positiboa dela esan genezake, maila bajuan bada ere.Elgoibarren makina erreminta da nagusi. Hamarkadaren hasiera behera egin bazuen ere lan industrialaren %38,5 betetzen du alor honek. Bigarren lekua errodamenduen industriak betetzen du. Ingeniaritza mekanikoko lantegi txikiak eta forja edo estanpazio lanetarakoak ondoren.



*Debegesak azken 10 urteatako industriaren garapena ikertu du.*

## Xiberuaren aldeko zozketa berriz egingo da

Elgoibarko Xiberuaren aldeko Batzordeak ateratako rifen zozketa berriz egingo da. Izan ere, 7.107 zenbakia atera zen ekainaren 7an ONCEk egindako zozketan, baina zenbakia saldu gabe zegoen. Beraz, gaur, ekainak 14, berriz egingo da zozketa. Saridunak 15 eguneko epea izango du azaltzeko. Batzordekoek herriko dendariak, ikastetxeak eta txartelak erosi dituztenak eskertu nahi ditu. Oraindik zenbat diru bildu den ez badakite ere, gustura daude jendearen erantzunarekin.



## Kalejira, bazkaria eta dantzaldia egin zituzten 50 urte betetzen dituztela ospatzeko

1952an jaio eta aurten 50 urte bete dituzten elgoibartarrek ospakizun berezia izan zuten joan den larunbatean. Elizkizun labur baten ostean, bolatokiko parkean argazkia atera eta kalejiran joan ziren Gure Bide elkartera txistu doinuz lagunduta. Hamarretako goxo baten ondoren Sigma jatetxean egin zuten bazkaria eta iluntzera arte luzatu zuten dantzaldia. Egon zen oraindik ere gazte daudela erakusteko-edo gauean afaltzen geratu eta dantzan gelditu gabe ibili zenik ere.



## San Pedro eta Lerun arteko zubi zaharra botako dute

Leruneko industrialdea eta San Pedroko etxeak batzeko zubi berria eraikitzen ari direla esan genizuen Iehen. Baina oraindik bertan dirau garai bateko trenbideko zubi zaharrak. Harrizko zubi hori botatzeko erabakia hartu dute. Izan ere, zubiaren albo batean espaloia eta muroa egingo dituzte. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak pasabide berria ahalik eta bizkorren amaitzeko konpromisoa hartu du. Zubia botako duten arren, harriak gordetzea da Udalaren asmoa egunen baten herriaren oroimen historikoa izan daitekeelakoan.

## Organu emaile izateko txartela 20 lagunek bete zuten larunbatean

Joan den ekainaren 5ean Organo Emaileen Naioarteko eguna izan zenez, larunbatean, hilaren 8an, Alcer Elkarteak mahai informatiboak ipini zituen herrian. Alcer giltzurrunetako gaixotasunak dituztenen elkartea da, eta beraien nahia jendea organoen beharraz kontzientziatzea eta ahalik eta organu emaile gehien lortzea da. Elgoibarren jende asko hurbildu zen informazio mahaietara eta 20 lagun inguru izan ziren donazio txartelak bete zituztenak. Bestalde, gogorarazi nahi dute urtean zehar herriko farmazietan ere bete daitezkeela txartelak.




## Agur Jon Iñakiri

Apiriletik gure artean egon eta gero, Jon Iñaki Lasa arrasatearrak laga egin du BARRENeko zuzendari kargua. Izan ere, beste lan bat eskaini diote eta gure aldizkaria lagatzea erabaki du. Zorterik onena opa diogu Jon Ifiakiri lan berrian.



## Melitonen errotonda egingo dute auto ilarak gutxitzeko

Errepide Nazionaletik Elgoibarrera sartzeko Titxurako bidegurutzea dago Meliton parean . Eguneko ordu batzutan 1.200 auto pasatzerainoko zirkulazioa izaten da eta horrek auto ilarak eta istripuak sortzen ditu maiz. Egoera konpontzeko biribilgune bat egitea erabaki dute, kontuan hartuta Albitxuriko Industrialdea martxan jarritakoan trafikoa areagotu egingo dela. Deba Beheko Industrialdea Elkarteak kostuaren erdia ordainduko du eta Gipuzkoako Foru Aldundiak gainontzekoa. Errepide nazionaleko trafiko arazoak gutxitzeko asmoz Madalako eta Sigmako zubietan ere errotondak egingo dituzte.

karkizano
San Franizisko, 14 — TeL 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

* IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
* MULTIKOPISTAK
* FOTOKOPIADORAK
* PLANOEN BIRREGILEAK
* ERLOJU INDUSTRIALAK
* MARRAZKETA MATERIALA
* INFORMATIKA
* FAX

### Pasa den zapatuan, aurten 50 urte beteUen dituzten elgoibartarrak elkartu ziren

# Nolakoa da 50 urte betetzen dituenaren sasoia?



## BEGOÑA ZUBIAURRE

**50 urte, dendaria**

Jainkoari eskerrak sasoi onian nago. Azken hamar urteotan ez dot aldaketa haundiegirik igarri.Ez nao 20 urtekin bezela, baina oso ondo sentitzen naiz.

## JOSE IGNACIO JAUREGI

**49 urte, zuzendari adrninistratiboa**

Ona, nik ez dot aldaketarik igarri. 20 urte eukiko banitxu bezela sentitzen naiz. Urte bat gehixao izan arren holako ospakizun ederra eitxiak merezi dau.





## ITZIAR LIZARRALOE

**50 urte, etxekoandrea**

Oso ondo. Pentsatzen badot, urte asko dia1akonturatzen naiz, baina bestela ez daka inportantziarik. Nere burua ondo, sasoiko ikusten dot.

## TXONIIN MUJIKA

**50 urte, aurrezki kutxako langilea**

Oso ona. Ni behintzat oindlok gazte sentitzen naiz. 50 urte horrek buruan edo bihotzian igartzen dia, azken finian bizi poza eukitzia da kontua.





## MARIA JESUS AZHUE

**50 urte, erizain laguntzailea**

Ondo naga. Oin dala 5 edo 10 urte bezela. Pentsau ezkero badaka garrantzia, baina bestela beste urte bat gehixao betetzia besterik ez da.

## ANTONIO JIMENEZ

**50 urte, torneroa**

Nire sasoia oso ona da. 40 urte egin nituenean bezala nago. Pentsatuz gero, batzutan eragiten dit, baina bestela batere ez. Fisikoki eta sikologikoki oso egoera onean nago.



IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOIVIOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
∴ IZENA EMATEAN OEKO BEHERAPENA
g41(44 g?/4 wdemeft Okeet ee«uta wettelikt, AUTO...
Tel: 943 74 10 11

UXUE AlbErdiriELKARRIZKETA **Kz GunEa** GAIA **ERLANTZ ALLURLOTSA**

# GAZTIA NAIZ

## BaRRen

GAZTE GEHIGARRIA · 2002ko ekainaren 14a. X urtea/409. zkia



## *Uxue Alberdi:*

# *"Nere lana baloratzen dabela ikustiak kriston ilusiua itxen dia"*

## GOV'T MULE

"THE DEEP END"
VOLUME I

r

ov't Mule gaur egun dagoen blues&rock talderik onenetarikoa da. 90eko hatnarkadako Allman Brothers eraberritua osatu zuten bi partaidek sortu zuten "Gohernuaren mandoa": Warren Haynes Eitarjoie eta abeslariak eta Allen Vv'oody baxujoleak. Matt Ahts bateria hancliarekin duela zazpi urte argitaratu zuten estraineko diskoa. Zoritxarrez 2000ko abuztuan Allen Woody-ren heriotzarekin hirukotea bikote bihurtu zen. ¯The deep end" Woody-ren omenezko lan zoragarria da. Diskoa grabatzeko baxujole gonbidatu hana izan dute kanta bakoitzean. Eta ez edonolako musikariak gainera: hesteak beste, Cream-eko Jack Bruce-ek, Red Hot Chili Peppers-eko Fleak eta The Whoko John Entwistle-ek hartzen dute parte. Baina horiek ez dira gonbidatu bakarrak, bestelako instrumentistak ere bildu haitira Woody omentzeko, tartean Gregg Allman, John Seofieiel edo Chuek Leavelt. Soula, bluesa eta rocka uztartzen dira hatnabi abestiz osatutako disko honetan. Eta hertsiorik ez da faha, Deep Purple-en "Maybe l'in a Leo" esaterako, Roger Glover baxuan dutela. Diskoari Allen Woody-rekin grabatutako "Sin's a good man's brother" kantak ematen dio amaiera. "The deep end"-en bigarren zatia urtea bukatu baino lehen argitaratuko da.

u

Gov't Mule taidearen lanak ez dira erraz aurkitzen diren horietakoak. Ahaleginak, ordea, merezi du, eta asko.




100

on Gurrutxaga



## UXUE ALBERDI

# "Atentziva dEitzEn diatEn gat ditxut idazianetarako idEak"

**SELEKTIBITATERAKO AZKEN PRESTAKETETAN AURKITU GENUEN UXUE. MATEMATIKA ETA HISTORIAKO APUNTEETAN BURUBELARRI SARTUTA. GUK UNE BATEZ IKASKETEN MUNDUTIK BERTSOEN ETA IPUINEN INGURURA EKARRI GENUEN. IZAN ERE, AZKEN ALDIAN HAINBAT SARI JASO DITU ARLO HAUETAN. JOAN DEN OSTIRALEAN EMAN ZIOTEN ESKOLARTEKO BERTSO TXAPELKETAN IDATZIZKOETAN LEHEN SARIA, ETA AURREZ E1BAR ETA ELGOIBARKO IDAZLEH1AKETETAN ERE TXAPELDUN IZAN DA. SELEKTIBITATEA AMAITU ETA DATORREN URTEAN KAZETARITZAKO IKASKETAK HASTEKO ASMOA DUEN NESKA GAZTE HONEKIN IZAN GARA BERBETAN.**

Azken aldian sari asko eskuratu dituzu.

Azken bi hilabete hauetan hiru sari jaso ditxut. Eibarrera eta Elgoibarko Izarrako Idazlehiaketara ipuin bera bialdu naban eta bixetan irabazi dot. Bertsuetan, berriz, Eskolarteko Txapelketa irabazi dot idatzizkuetan nere mailan. Gaixa"Gaur oso filme gogorra ikusi dugu zinernan" zan, eta nik bizitzakin erlazionau naban gaixa eta hola amaitxu naban azken bertsua: "Hobe genuke filmea balitz / injustizien baldintza / Tiro guztien atzetik beti / teloia itxiko balitza".

Zein esanahi dute sari hauek zuretzat?

Txikitatik gustau izan jata bertsuak eta ipuinak idaztia, eta lan hori baloratzen dabela ikustiak kriston ilusiva itxen dia.



Beti idatzian aritzen zara. Prosa ala bertsoa duzu nahiago?

Nere kontura idazten jarri izan naizenian oin arte beti bertsuak idatzi izan ditxut, baina hortan estankatzerik ez dot nahi, prosa idaztia ere gustatzen jatalako. Adibidez, in naban azken ipuinakin gustura geratu nintzan, eta horrek satisfakziva ernan zian.

Non bilatzen duzu inspi-

## zEtatik atEratzEn

razioa?
Nere bizitzan. Atentziva deitzen diaten gauzetatik ateratzen ditxut ideak. Jende diferentia ikustia eta hori nere lanetarako erabiltzia ere gustatzen jata. Batzutan idazIaneko parrafo baten bakarrik agertzen dia, baina noizian behin sartzen dot jende berezixa.

Zertarako idazten duzu?
Ez dot zerbaitetarako idazten. Eskolan idazlan bat itxeko eskatzen digutenian edozeinek pentsau leike derrigortuta idazten dotela, baina ez da guztiz egixa. Mateko ariketak ere derrigortuta itxen ditxut, baina idazlana eskolarako izan arren eta hori itxen ordu asko sartu arren, gustura itxen dot. Nere buruakin gustura geratzia eta ahal dotela erakustia nahi naban. Beste gauza batzutan ahal izan arren gustatzen ez jatanez ez naiz hainbeste saiatzen.

Bertsoak ere idazten dituzu. Eta kantatu?
Bat-batian juergetan-edo ez bada ez dot itxen. Bertsua botatziarren bota, rimau eta zeozer esatia, bale baina hortik aurrera... zaila da. HaIa ere, gustauko litzaidake.

Zer behar du idazle on batek?
Gustatzia eta idazten dabanakin ziur egotia. Pasau leike bat oso idazle ona izatia eta neri ez gustatzia, eta alderantziz, bere bizitzan ipuin bakarra idatzi arren hori neri barruraino ailegatzia. Saiatzia ere biharrezkua da, bestela zaila da aurrera ateratzia.

Hainhat idazleri entzun izan zaie disziplina beharrezkoa dela idazteko orduan. Zu disziplinatua al zara?
Ez, neretzat horrek ez daka zentzurik. Egunero ordu konkretu baten idazten jarriko banintz uste dot urte guztian idatzitako gauzetatik gutxi batzuk izango liakela onak. Behin Asier Serranori entzun nion afizio bat ofizio bihurtzen danian bere xarma dana galtzen dabala, eta neretzat idaztia afizio bat da.

'ZIKO TXII

Idazie bat?
Asier Serran gustatzen izkit.
Nlesilan lihurtia?
Alkimist
Onena Egaña.
Idaztek[redacted] agailuz?
Eskuz.
I dazIan liaterako gaia?
Gaian amo pertsonatetan zentratzen naiz.
Bertsorik merezi duen pertsona bat
Maite doten edozein
Bertsotarako doinu bat?
Habanera
Abesti bat?
EH Sukarraren 10 urte kartzelan

Kazetaritza ikasteko asmoa daukazu. Idazteko zaletasunak izan al du zerikusirik erabakia hartzeko orduan?
Bai, erabat. Ez dot sekula pentsau periodiko baten lan itxia gustauko litzaidakeen edo ez, baizik eta neri idaztia gustatzen jatan aldetik, horrekin erlazio gehixen dakan karreria aukeratu dot.

Etorkizunean zure burua idazle moduan ikusten al duzu?
Kazetaritzan lan bat lortzia berez nahiko zaila bada, gustatziaz gain, suertia euki bihar dala uste dot.

Eta hertsotan?
Ez naiz kapaza ikusten.

## (2D01. HOTZEAN"

TRUMAN CAPOTE

Estatu Batuetako herriska batean. 1959. urteko azaroaren 15ean, familia bereko lau pertsona erahil zituzten. Urtehete baino lehen, bi hilizaileak harrapatu egin zituzten eta bost urteren burtian, heriotza zigorra ezarriz hil zituzten. Gertakari guztiak sakon ikertu ondoren, Truman Capotek "Odol hotzean" nobela bikaina idatzi zuen. Egileak "Non fiction novel" (fikziorik gabeko nobela) bezala hataiatu zuen, orduan gertatutakoak zehatz-mehatz azaldu zituelako. Baina idazle estatubatuarrak, gertakariak kontatzearekin batera, hiltzaileen erretratu psikologikoa eta bere gizartearen erradiografia ere eskaintzen digu. Besteak beste, heriotza zigorraren gaia aurkezten dio irakurleari. Emaitza paregabea da eta orrialde ahaztezinez beteta dago Igela argitaletxe nafarrak euskaratutako eleberri hau. Truman Capotek, liburu honi esker, XX. mendeko idazle handienetako bat zela erakutsi zuen.




Jon Eugi

GAIA

# Internet gu

# Du

**InternEt modan dago. azken aldian gEro Eta gehiago. Zahar Eta gaztE dEnEtarik joatEn da KZ gunEra. Zertara? IntErneten nabigatzEra Eta nola ibiltzEn dEn ikastEra. Jubilatuei, etxEkoandrEEL langabetuEi edo ikaskEta maila bajua dutEn gazteei zuzEndutako zErbitzua da KZ gunEa. Bi hilabetE dira martxan jarri zela eta oraingoz 255 lagunEk Eman dutE izena bertan. Maite EtxEbErria Eta Ibai IdiakEz aurkitu ditugu KZ gunEan Eta bErtako berri Eman digutE.**

Gazteek gehienetan jakin badakite interneten erabileraren berri eta horiek informazio zehatzaren bila edo e-posta bidez jasotako mezuak irakurtzera joan ohi dira. Oraindik ordenagailu aurrean zalantzak dituztenentzat, berriz, ikastaroak antolatzen dituzte: "Horientzako 6 orduko oinarrizko ikastaro bat dugu prestatuta eta ondoren, ikasitakoa praktikatzera etortzen dira, eta horretarako bi orduko mintegiak egiten ditugu. Batez ere, adineko pertsonek zailtasun asko izaten dute, orain arte inoiz ez direlako interneten ibili", esan digu Maitek. Maite eta Ibai arduratzen dira oinarrizko ikastaroak emateaz. Bestalde, badira ikastaro sakonagoak eta horiek "Egailan"-en bidez ematen dituzte. Oinarrizko ikastaroetan lehenengo ordenagailua bera, teklatua eta sagua erabiltzen erakusten diete, gero interneten sartzen eta ondoren posta elektronikoarekin aritzen dira. Ikastaroetan izan dituzte hainbat anekdota bitxi: "Badira pantailan eskuaren irudia agertzen denean pantailari hatzamarrarekin ikutzen diotenak, edo sagua gora eramateko esaten diegunean mahaitik altxatzen dutenak".



*Gazteek interneten erabilera badakitenez beraien kontura nabigatzen dute.*





**» Ikasle txartela,**
**AtErpekidE**
**(albergista) txartela,**
**Irakasle txartEla**
**Gazte txartela**

**bErtan Egingo dizugul**

**g informazioa**

**KULTUR** ETXEKO 2. SOLAIRUA NAFARROA PLAZA, 3 Tel. 943 741 461 E-maila: elg.gzerbitzua@terra.es
Astelehena - asteartea - osteguna - ostirala: 17:00etatik-20:00etara • Larunbata: 10:00etatik - 14:00etara

# ztiEn Eskura

**Gazteek korreoa eta informazioa**
Gazteei buruz galdetu diegunean zera erantzun digute: "Egon da 16 orduko ikastaroetan izena eman duenik, baina oso gutxi dira. Gehienek badakite, beraz, nabigatzera edo korreoa irakurtzera etortzen dira. Badira messenger delakoa erabiltzeko asmoz etortzen direnak, baina hemen arau batzuk ditugu eta debekatuta dago".
Ikasitakoa praktikan jartzen dute, baina azterketarik izaten al dute KZ gunean? Ikastaro amaieran ez omen da examinik, baina badago interneko ezagutzak dituzteIa egiaztatzeko titulu bat eskuratzeko aukera, horretarako, ordea, azterketa egin behar dute.
Beraz, gazteek badute informazioa internet bidez jasotzeko aukera KZ gunean, eta bigarren gaztaroan daudenek ere gazte garaian ikasterik izan ez zutenez orain edukiko dute horretarako parada. Ikastaroetan zein norbere kontura KZ gunean interneten ibil daiteke bakoitzak nahi duen modura, beti ere gogan hartuz arduradunek emandako arau zerrenda hura.


*Maite Etxeberria eta Ibai Idiakez dira KZ Guneko arduradunak*

## BALDINTZAK

- o 18 urtetik gora izatea.
- o Chat-a eta messenger-a ezin dira erabili.
- o Orri batzutara sartzea debekatuta dago: Eduki sexualak dituztenak, delitua eta bortizkeria sustatzen dutenak, legeak betetzen ez dituztenak eta arrazakeria edo xenofobia bultzatzen dutenak.
- o Egunean ordubetez nabigatu daiteke

## KZ GUNEA DATUTAN

Oweilen laillanit
Nabigatzeko 5
Formaziorako 10
..Alb 2
Eireatfillwallegia
255 (Izena eman dutenak)

❑ Oinarrizkoa: 6 ordu
o Sakona: 16 ordu
o Mintegiak: 1 edo 2
Onduagezi■
171 Goizez: 9:00-13:00
❑ Arratsaldez: 16:00-20:00
Uztaila: 8:00-16:00
Abuztua: Itxita

## IKASTAROETAKO PARTAIDEAK
### ADINAREN ARABERA






# lots@gabE

*Guruzne Urkidi, Jokin Aituna eta Miren Bastidaren laguntzarekin egiten dugu atal hau. Parte hartu nahi baduzue deitu edo etorri BARRENera, Animatu!*

**@ Defini ezazu zure burua bi hitzetan**
**Mutil zentzuduna, gauzak garbi dituena eta langilea.**
**@ Zarauztik Elgoibarrera etorri zara. Zer moduzko aldaketa?**
**Oso** herri ezberdina da Zarautzekin **konparatuz. Kale giroa beste mota batekoa da.**
**@ Zarauztarra izanik nolatan zabiltza bertsotan eta ez surf egiten?**
**Ez al dakizue bertsoak direla hi**tzen surf-a?
**@ Gustuko duzun bertsolari bat?**
**Jon Maia**



**@ Nola konkistatuko zenuke gustuko duzun neska bat?**
**a) Bertso edo poesia batekin.**
**b) Streaptease bat eginez.**
**d) Dantza eginez.**
**Uste** dut hori izan dela gehien mantendu den modua; poesiekin edo **hitz politekin.**
**@ Zer aldatuko zenuke Hitzetik Hortzera saioan?**
**Ez** dut arazorik aurkitzen, baina Iparraldeko neska horrek urduri jartzen **nau, eta neska** katxarro bat jarriko nuke.
**@ Egun bateko bizitza emango balizute zer egingo zenuke?**
**Ongi** gosaldu eta ezagutzen ez dudan nonbaitera alde egingo **nuke. Mundu isolatu batera-edo.**
**@ Neska perfektua?**
**Euskaraz hitz egiten duena eta horretarako lotsarik ez duena.**
**@ Zein mezu ipiniko zenuke egunkariko kontaktuen atalean?**
**Bertso bat ipiniko nuke.**
**@ Irakasleren batekin pentsamendu lizunik eduki al duzu?**
**Bai,** Zarautzen musikako irakasle batekin. Flauta jotzen zidala amestu nuen, nik ez nekien-eta.
**@ Fobiarik ba al duzu?**
**Bertso bat abesten hasi eta bat-batean han, publikoan, amorru gehien ematen didan huraxe ikustea. (Hitzetik Hortzerako neska).**
**@ Juergarako toki bat?**
**Elgoibar onena.**
**@ Ate bateko sarrailetik zer ikustea gustatuko litzaizuke?**
Orain arte egin ditudan oker guztien bigarren aukera bat.
**@ Bukatzeko, bertso bat kantatuko al diguzu?**
Bai, noski.

Bakoitzak izan behar du
Buruaren jabe
Sortarazten dizkigu
Hainbat nahigabe
Nahaste ta okerrak
Badaude hala ere
Hala konponbideak
Ez dira debalde
Bakoitzaren alde
Behin ta berriz galde
Ezkutuan daude
Gu ere hor gaude
Gauzak in behar dira
Lotsarik gabe

**http:/erlantzallur@com / 15urte**


**Donostiako enpresa batek ondoko lanpostua bete behar du:**

**KOMERTZIALA (73 erref.)**

**PUBLIZITATE SAIMENTAn aritzeko DERAALDEAN**

**ESKAIMZEN DA:**
- lan kontratu laborala, Gizarte Segurantzarekin.
- **Soldata finko interesgarria** + Komisioa.
- Bezero zerrenda.
- Formakuntza, enpresaren kontu.

**ESICATZEN**
- EUSKARAZ JAKITEA EZINBESTEKOA DA.
- Eskarrnentua izatea antzeko lanetan.
- Komunikaziorako gaitasuna eta harremanetarako trebezia.
- Eskualdean bizitzea.
- Autoa izatea.

INTERESATUEK, CURRIKULUM ZEHATZA BIDALI ARGAZKI BERRI BATEKIN, EKAINAREN 19a BAINO LEHEN, HELBIDE HONETARA:

**1887 Posta-kutxa / DONOSTIA I**

# Handia naizEnEan...
# Administrarla






**EIDER IRIONDO**

*Batxilergo ikasketak amaitu ostean, unibertsitaterako bide hartzen dute batzuk, lanbide heziketakoa beste zenbaitek. Pausoa bide honetatik luzatu zuen Eider Iriondok eta bide horretan barrena Administraritza eta finantza moduloan egin du geldialdia.*

**Zer dela-eta aukeratu dituzu ikasketa hauek?**
18 urtekin seguru ezin da jakin zer itxia nahi daban bakoitzak eta honek bi urte pasautakuan beste bide bat hartzeko aukeria ematen du. Karreria baino modulo bat itxia hobe zala pentsau naban. Bestalde, batxilergo humanistikua in nabanian ekonomia-eta beste batzuk baino gehixao gustatzen jatazen eta horregatxik aukeratu naban administraritza.

**Zertan datza modulo honek?**
Enpresa bateko administrari batek in biharko litxuzkeen lanalc itxen ikastia da kontua: fakturak, almazenan kontrola...

**Zer da gehien gustatzen zaizuna?**
Lantaldian itxen dian proiektuak. Ikastetxian enpresa simulatu bat in dabe, eta enpresako departamento ezberdinak ezagutzeko rotazio sistema dakagu.

**ADMINISTRAZIOA**

**ZErIAT URTE?**
2 ikasturteko **moduloa**

Otsailetik ekainera (2. Ikasturtean)

**IICASGAIAIC**
**1. maila:** Kontabilitatea, Informatika, Gestio Komertziala, Hornikuntza Gestioa, Giza Baliabideak, Finantza Gestioa, Ingelesa.
**2. maila:** Auditoria, Administrazio Publikoa, Lan Prestakuntza eta Orientabiidea, Finantza eta Asegu-ru Zerbitzu eta Produktuak, Enpresa proiektua, Kalitatea

**Espero zenuen bezalakoak al dira ikasketak?**
Bai, aurretik ikasketa hauek in dituan jendia ezautzen naban eta asignaturen berri ere banakixan. Ikasketak hasi nitxuanian sorpresa bat hartu naban: Nik matrikuIia euskeraz in naban baina oin ikasketak erderaz dia. Gainera, gero enpresetan seguraski erderaz lanin biharko dogu.

**Etorkizunean zertan lan egin dezake ikasketa hauek egiten ditue-nak?**
Enpresa batian administrari Ianetan, salmenta departamentuan-edo. Banketxe edo aurrezki kutxa batean ere Ian egin dezakegu.

**Animatuko al zenuke jendea ikasketak bide honetatik jarraitzera?**
Karrera bat nahiko mugatua da, lau urte pasau ditzakezu benetan gustatzen ez jatzun zeozer ikasten. Moduluetan, berriz, bi urte pasau eta gustatzen ez baj atzu beste gauza batetan hasteko modua dao. Gainera, moduluetan praktikak itxen dia enpresetan. Gure kasuan, bigarren mailan otsailian klasiak bukatu ekainera bitxartian enpresetan praktikak itxen ditxugu.

**Prest ikusten al duzu zure burua enpresa batean lanean hasteko?**
Enpresa simulatuan bai, baina oindiokan solturia hartu bihar da eta gehixao ikasi. Horretarako bigarren kursuan asignatura inportantiak daude. Norbere burua prest ikusi arren beti egoten da bildur piska bat enpresan zeozer itxeko esan eta jakingo ez dozun bildur hori.

sexualitatea



Eli **Moreno**
**SEXOLOGOA**

## LIGATZEKO PREST? (2)

Neska, 16 urte Iesbiana.
Argi daukat Miren gustatzen jata.
Lesbiana naiz.

Zer egin bihar dot? Esango diot? Zela? Zer pentsauko du nitaz? Jarraituko da nere laguna izaten? Eta beste norbait enteratzen bada? Eta nere gurasuak? Gelako lagunak? Barren aldizkaria? Hau norbaiti esan egin bihar diot, baina nori? Bakarra izango naiz? Igarri egingo jata?

Badakit zer egingo dudan: Mate penkatu dotela aprobetxatuz, Mireni eskatuko dizkiot apuntiak eta jasotzera juaten naizenian esan egingo diot gustukua dudala; edo hori egin biharrian muxu emango diot, hau da nere aurpegia beraren aurpegira hurbilko dot eta muxu emango diot... Muxu emango diodala!!!! Ia, berotu egin naiz ezin diot esan eta ezin dot muxukatu, bestela gertatuko dena zera izango da, Mirenek beste norbaiti esango diola, beste horrek beste bati guztiek jakin arte LESBIANA naizeIa eta orduan bakarrik geratuko naiz...

Hala ere, LASAI seguraski hau konfusio bat da, agian Miren lagun bezala gustatzen jata eta ez bikote bezala, agian neskak ez jataz gustatzen, agian...
Zer egingo dot?

*Biluzik Sexologia Zerbitziu*
*Gazte Informazio Gunea. Kultur Etxea.*
*Bigarren solairuan. TeL 943 74 14 61.*
elg.gzerbitzua@terra.es

# kontzErtuak

## EKAINA

### 14 barixakua

**BERGARA**
**22:30 E.H. Sukarra**
Gaztetxean

**MARKINA**
22:30 **RIP, Kaotiko eta Kuraia**
Aramaio auzoan

**SORALUZE**
**22:30 Eraso! eta Cool Panic**
Ezozi auzoan

### 15 zapatua

**BERGARA**
**22:00 Hamlet eta Grass**
Jam Aretoan

**GASTEIZ**
**21:00 Australian Blonde eta Privados**
Azkena aretoan

**ONDARROA**
**22:30 Skalarlak**
Kafe Antzokian

### 16 domEkia

**BERGARA**
**20:30 Anari**
Gaztetxean

### 17 astElehEna

**BILB 0**
**22:00 Orishas**
Kafe Antzokian

### 21 barixakua

**ONDARROA**
**22:30 Albert Pla**
Kafe Antzokian

**DONOSTIA**
20:00 **Michael Nyman Band**
Kursaalean

## LIZTAILA

### 4 ostEguna

**BERGARA**
20:00 **Soulfly**
Jam aretoan

### 9 martitzena

**BERGARA**
**21:00 New Bonb Turks eta The Bellrays**
Jam aretoan

## LEH1RKETO LIBURU BAT

H1LABETE NONETAN "XAKE MATE", ALBERTO LADRON LIBURUA ESKURATZEKO IIONAKO CALDERA NON1 ZUZEN ERANTZUN BEHAR D1OZU:

**NONGOA DO fiLIERTO 141DR011 IDMEA?**




*Aurreko lehiaketako irabazlea:* **Arnaia Larrañaga**

BRINERaw eta BIUIRAMEAN argRaletaarea eridem 1 adaleta eir
Ira11~1111LIBBIre elar laaleibm liaamst amela wina



gazte informazioa

*Elgoibarko Gazte Informazio Gunea Kultur Etxean. Bigarren solairuan. Tel. 943 741 461 Ordutegia: Astelehena-asteartea- osteguna-ostirala: 1 7:00-20:00 larunbata: 10:00-14:00*

#### BEKAK

**Barne-merkataritza**
Eusko Jaurlaritzak barne-merkataritzako aholkulari teknikoak prestatzeko beka atera du. Beka hauen onuradunek egin beharreko jarduerak merkaiarizaren inguruko laguntza teknikaa eskaintzeko gabineteetan egingo dira edo bestela, merkataritzobanaketan diharduten enpresetan.
**Epea: ekainak 28.**

**Garraio zuzendaritza**
Eusko Jaurlaritzak Garraio Zuzendaritzaren prestakuntza-beketarako deialdia egin du goi-mailako titulazioa dutenentzat. 9 prestakuntza beka izongo dira. Zuzenbideko, Ekonornio eta Enpresa Zientzietako, Informatikako eta goi-mailako ingenerazetako lizentziaturak lehenetsiko dira.
**Epea: ekainak 28.**

#### JARDUNAWIAIC

**Hitzaldio**
Jose Mantero, apoiza: "Doy gracias a Dios por ser gay". Homofobia eliza katalikoaren barnean. Ekainaren 14an, arratsaldeko 19:30ean Bilboko La Bolsa Gizarte Etxean (Pelota kalaa. Alde Zaharra-Bilbol

**Lesgaybira**
Lesgaybira ospatuko da Donostian, ekainaren I6an. Irteera Boulevardetik , goizeko 11:00eton. Ekainaren 22an, Jareño Kultur Etxean (Egia) sekulako jaia ospatuko da 23:00etatik aurrera.

**Zinea**
Ekainean ostegunero Arrasaten Amoia Antzokian gaueko 21:30ean gay eta lesbianen inguruko zinea, laburmetrai bat eta luzemetrai bat.

#### LEHIAKETAK

**Kartel fehiaketa**
Azpeitiko Udalak 2002ko "Euskarozko Antzerki Topoketen" kartel lehiaketa antolatu du. Saria: 901 euro. **Epea: ekainak 20**

#### IKASTAROAK

**Anizerki** eta **interpretazioko udako ikastaroak**
Victor Hernando Antzerki Estudioak ondoko ikastaroak antolatu ditu udorako: ahots mintzatuari buruzko mintegia, kontu trinkoo (estilo guztiaki, cianza-jazz, antzerki hastapenei buruzko ikastaro trinkoak... **Epea: plazak bele arte.**

#### LANA

**Osakidetza**
**1000** postu baino gehiago betetzeko oposiziolehiaketarako deia egin du Osakidetzak: Informatikoriok, terapeutak, psikiatrak, pediotrak, gizarte laguntzaileak, erizainak, administrariak, dietistak, odontologoak, neurologoak.„

**Garbitzailea**
Oriako Udalaren bulegoak garbitzeka pertsona bat kontratatzeko oposizio librea. Eskola Ziurtagiria eta euskarako 1. Hizkuntzo eskakizuna behorrezkocrk dira. **Epea: ekainak 22**

**Huzik**
1E1fOLOGIA ZERNITZUA

Tet: 943 74 14 61
E-posta: biluzikzerbitzuw@yahoo.com
Astelehenero 17:00-20:00
Gazte Informazie Gunea
Kultur Elxea

# "Organoak ematea, bizia

*Ekainaren Sean Organo Emaileen Nazioarteko eguna izan zen, eta gai honen inguruan dagoen beharra ikusirik, Ines Sesma ekarri dugu gure arfera. Inesek 39 urte ditu, eta duela lau giltzurruna trasplantatu zioten. Organo emaileak gero eta gehiago dira, baina organu berri baten zain daudenak gehiago dira oraindik. Elgoibarren 1084 pertsonak dauka organo emaile txartela. Jendea kontzientziatu eta mentalizatu beharra dago. Arazoa larria da, eta pertsonen bizitza dago jokoan. Inesek bere esperientzia kontatu digu.*



nes Sesma

**Zein da zure egoera?** Duela lau urte giltzurruna trasplantatu zidaten. Anditika baten bidez konturatu ziren giltzurrun trasplantea behar nuela, eta hasieran oso gogorra izan zen, baina familiakoei eta lagunei esker aurrera egin nuen.

**Denhora luzez egon zinen trasplantearen zain?** 8 hilabete egin nituen dialisira joaten. Asko zaintzen nuen neure burua, elikagaiak kontrolatuz eta kirola eginez. Bi giltzurrun zeuden lau pertsonentzat, eta neri tokatu zitzaidan bat. Fisikoki oso ondo nengoen, eta ebakuntza egiteko pertsonen egoera fisikoa oso garrantzitsua da. Ebakuntzak bi ordu inguru iraun zituen, dena ondo atera zen, eta errekuperazio prozesuan ere, ez nuen arazorik izan.

**Nola pasa zenituen hilabete haiek?** Dialisira joaten hasi nintzenean asko aldatu zitzaidan bizimodua. Astean hiru aldiz joaten nintzen, eta fisikoki nahiko gogorra da. Nik ez nuen arazorik eduki tratamentuarekin, baina badago oso gaizki pasatzen duen jendea. Oso serio hartu nuen, eta sendagileak esaten zidan guztia egiten nuen. Likido oso gutxi edan, igeri egin eta ahal nuen pisu gutxien hartu. Nire giltzurrunak ez zuen lanik egiten, beraz, likido guztia barruan gelditzen zitzaidan. Pisua hartzea oso erraza da, eta dialisira oso beteta joatea arriskutsua da. Jendeak oso gaizki pasatzen du, baina nire esperientzia oso ona izan da.

**Trasplantearen ostean. nola aldatu da zure bizitza?** Oraindik ere neure burua zaindu behar dut, baina *ez* zait gogorregia egiten. Pisua kontrolatu behar dut: pasta eta arroza jaten ditut asko, grasa gutxi, likido asko duten elikagaiekin kontuz ibili eta kirola egin. Kirola egitea oso garrantzitsua da. Fisikoki gogor egoten laguntzen dit. Igeriketa egiten dut, batez ere. Dialisian nenbilenean ordu bete egiten nuen igeri egunero. Orain ere joaten naiz, baina gutxiago.

**Zein da organu emaileen egungo egoera?** Gipuzkoako egoera oso ona da. Gero eta jende gehiago dago, baina sekula ez da nahikoa. Badago oraindik kontzientziatu gabeko jendea, baina gero eta gutxiago dira. Mahai informatiboak antolatu genituen, eta 20 donante berri inguru lortu genituen. Hala ere, garrantzitsuena jendearekin hitz egin eta infornatzea da.

## "Jende asko dago organoen zain, makineri lotuta hizi dena, eta hori oso gogorra da"

**Zein baldintza bete behar ditu organo emaile batek?** Batbateko heriotza jasaten duten pertsonen organoak trasplantatzen dira, batez ere. Istripu batean hil diren pertsonak izaten dira gehienetan. Jende gaztea, bizitzako sasoirik onenean dauden pertsonak. Gaixotasunik ez daukaten pertsonak izan behar dira, organoak egoera onean egoteko.

**Zein organo dira premiarik larriena dutenak?** Bihotza da zailena. Gibei trasplanteak ere gero eta gehiago ari dira egiten, eta giltzurrunak lortzea ez da hain zaila. Egoera hobetzen ari da, baina bihotz trasplanteen eboluzioa motela da.

**Zer esango zenioke jendeari organo emaile izateko?** Jende asko dago organoen zain, makineri lotuta bizi dena, eta hori oso gogorra da. Gertutik tokatzen zaigun arte, ez gara konturatzen, baina pertsonen bizia dago jokoan. Organoak ematea, bizia oparitzea da, eta ez dago hori baino gauza ederragorik.

## Jesus IVari Gabilondo

# "Gaztiek lekua hartzeko lagako dot presidente kargua"



❑ Urtebete egin duzu Klub Deportiboko presindentzian. Zein da egiten duzun balorazioa? Balorazioa oso ona da. Gure lehen asmua herrixa Klub Deportibora arrimatzia eta ekipua animatzera Mintxetara igotzia lortzia zan. Demaseko laguntasuna topau dou herrixan. 400 bazkidekin hasi eta ixa 700era igotzia lortu dogu.

❑ Hasieran zenituen asmoak betetzea lortu duzu, beraz? Bai, herrixa eta taldia konektatzia eta giro ona sortzia lortu dogula uste dot. Kirol arluan, infantilen taldiak bakarrik lortu dau mailaz igotzia, baina beheko taldietan jende asko ibili da. Haundixa ere 17 jardunaldixan izan da lider, baina talde bakarra igotzen da mailaz eta aurten ezin izan da.

Cl Zergatik lagako diozu presidente izateari? Direktiban jende gaztia nakan eta nik laga arren, kontinuidadia bazauala ikusi naban. Gaztieri lekua lagatzeko ordua zala iruditxu jatan. Igor Palomino Kluba zuzentzeko pertsona oso egokixa da. Hemendik aurrera bazkide soila izango naiz.

❑ **I,an gogorra al da presidentearena?** Bai, baina askoz errezaua izan da euki ditxuten 12 direktibueri esker. Oso ondo konpondu gera elkarrekin, errespeto handixakin eta gustora ein dou lan. Klub Deportibuak presupuesto fuertia daka, 20 milioitik gorakua, eta fin ein bihar da lan. Udalak 300.000 pezeta ematen dau eta gainontzeko dana handik eta hemendik atera bihar da. Horregatxik bihar da herrixan laguntasuna. Bestalde, sei talde eta 140 neska-mutilen arduria eukitzia responsabilidade haundixa da. Honek guztixak dedikazio haundixa eskatzen dau.

1-11 Karakatera oinez **joateari laga zenion, ezta?** Bai. Lehen, lanetik urten eta Karakatera ixa egunero igotzeko ohitxuria nakan, baina aurten ezin izan dot. Oin berriz hasteko asmua dakat.

❑ **Duela 18 urte ere izan zinen presidente. Asko aldatu al dira gauzak?** Kluba asko aldatu da, baina onerako, bai instalazio eta bai azpiegitura aldetik.

❑ Aurtengo denboralditik zerbait aukeratu behar izanez gero? Herrixak urtian zihar erakutsi daban laguntasuna apartekua izan da eta oso harro nao. Gabonetan 3 milioi atera genduzen rifak saltzetik. Publizidadiakin ere 6 milioi atera dia. Haundixa regional preferentian egoteko lorpen handixa da. Bazkidiekin ere 6 milioi lortu ditxugu.

❑ Zer eman dio Jesus Mari Gabilondok Klub Deportibori? Dedikazio haundixa. Klub honek errespeto haundixa zor dia eta sartu nintzanetik gauzak ondo eitxeko dedikazio eta ordu askoko Iana ein bihar zala ikusi naban. Horretaz gain, giro ona sortzen eta danataz arduratzen saiatu naiz, afarixak, merixendak... Neska-mutilak behetik hasitxa tratau bihar dia ondo. Nere ilusiva da neska-mutil hauek futbola lagatzen dabenian esatia 'ze ondo pasau genduan Elgoibarren urte haretan'. Hori esaten badabe kluba beti egongo da goixan. Giro onik ez badao zaila da kirol arluan goixan ibiltzia.

❑ Eta **Klub Deportibok Jesus** Mari Cabilondori? 1917xan sortu zan klub bateko presidente izatia demaseko satisfakziva eta ohoria izan da. Horregatik, ahaleginak ein bihar dia klub hau merezi daban tokixan lagatzeko. Hori izan da gure asmua edo ilusiva.

❑ Zer esango zenioke presidente berriari? Herrixakin harremanetan jarraitzeko esango nioke, herrixak lagunduko dio-eta. Bera eta bere ekipuan kapazidadiakin Klub Deportibo Elgoibarrek aurrera jarraitxuko dau.

# Gaur, hilak 14, ireki dituzte Mintxetako Udal Igerilekuak

## Irailaren 1 5era arte izango dira zabalik goizeko 11 :00etatik iluntzeko 20:00etara



Gaur, barixakua, ireki dituzte Mintxetako aire libreko Udal Igerilekuak. Iazko abuztu bukaeran eta irailaren hasieran ireki zituzten, baina gaur egun duen itxuratik hurrun zeuden. Igerilekuaren inguruneko berdeguneak eta aldagelak txukundu eta prestatu dituzte. Mintxetako igerilekuak irailaren 15era arte egongo dira zabalik astelehenetik domekara eta 11:00etatik 20:OOetara bitartean. Kirol Patronatuko bazkideek eta 3 urtetik beherako haurrek sarrera dohainik izango dute. Dena dela, denboraldiko bonoak Olaizaga Kiroldegian eta Mintxeta Igerilekuan hartu daitezke. Egun baterako sarrerak 4,5 eurotako (750 pta.) prezioa izango du (3 euro I 8 urtetik heherakoentzat). Denboraldiko bonoei buruzko informazioa eta prezioen berri jakin nahi izanez gero Kiroldegira edo Mintxeta Igerilekura joan.

# Nahaste Borraste proba herrikoia ekainaren 28an, barixakuan, jokatuko da

## Aurten 16 urtetatik gorakoen proba bakarrik izango da



imetz Elkarteak antolatuta, ekainaren 28an, barixakuan, arratsaldeko 19:OOetan jokatuko da Nahaste Borraste kirol proba herrikoia. Ohi bezala, 3 kirol ezberdin egin beharko dira: bizikleta, aintxintxika 25 edo 10 kiloko zakua bizkar gainean hartuta eta saltaka. Iaz 9 parte hartzaile bakarrik aurkeztu ziren nagusien lasterketan eta 3 besterik ez gaztetxoen mailan. Aurten proba egin edo ez zalantzan izan direla aipatu digute antolatzaileek, eta herritarrak parte hartzera gonbidatu nahi dituzte, "Pena izango litzateke jende faltaren erruz horrelako proba herrikoi eta bitxia bertan behera laga beharra. Are gehiago berreskuratu zenetik 18 urte pasa direnean". Gauzak horrela, 16 urtetik beherakoen probak iaz izan zuen arrakasta eskasa ikusirik egitarautik kentzea erabaki dute eta 16 urtetik gorakoen Iasterketa bakarrik jokatuko da. Parte hartze handiagoa izateko itxaropenarekin astebete atzeratu dute Nahaste Borrastea antolatzaileek, Quebrantahuesos zikloturista probarekin bat ez egiteko. Izena emateko: 943 74 28 80 telefonora deitu arratsaldez.

## EMAITZAK

**Futbo 7**

Brujeria **4-** inter Artetxe **4**
Iratxo 0 inkisizioa 10
Margon 8 Dinamo de Gale **4**
F.S.J. 7- E-90 2
Grassopper 1 - Aixa 7
Martes 7 **4-** Pub Escorpio 2
Lambro 2- Gure Txoko **9**
Operacion Triunro **4-** Pub Lejantzi 3

**Esku piiota**

Sigmako Pilota **Txapelketa**
l. Txurruka 18 - 0. Txurruka 4 (Int.)
Beraza/Alzibar 22- Olaso/Egaña **20**
UlaziWIriondo **22** - Ander/Gerrika **20**
Agirreheña/Osoro **22** Beristain/Zarzue[o 10

## AGENDA

**Esku pilota**

**Sigmako Pilota Txapelketa**
Martitzena, 18
18:00 0. Txurruka - K. Arrizabalaga
18:30 Garate/Iparragirre - De Pablo/Arrillaga
19:30 Beristain/Zarzuelo - Arrieta/Idoeta
Eguena, **20**
18:00 I. Txurruka - I. Ugaide
18:30 Ulazia/lriondo - Karral/Lander
**19:80** [barluzea/Xabier - AgirrebeñalOsoro
**19:30** Olaso/Egana - Eneko/Balzola

**Futbol 7,** Mintxetan

**Eskualdeko Txapelkela**
**Zapalua, 15**
**9:00** Los Gavilanes Operacion Triunfo
**9:00** Sporting Mont. Bikendi
10:00 Peña Petas - Txuta Gar
10:00 Gaberdiko - Ford Lerun
11:00 Antxarrak - Txonta F.T.
11:00 Bar Azkena - Mazzantint
**12:00** Kashima Brewers Rezola
**12:00** isspro - F. Astigarraga

# Igor Palominok presidente kargua hartu zuen Klub Deportibo Eigoibarren Batzar Orokorrean

## 27.310 euroko superabita izan du klubak aurten

Pasa den eguenean, hilaren 6an, egin zuen Klub Deportibo Elgoibar Elkarteak urteroko batzarra. Bertan, 2001/2002 denboraldiko balantzea egiteaz gain, Jesus Mari Gabilondok presidente kargua laga zuen eta Igor Palominok hartu zuen kluba zuzentzeko ardura. Zuzendarl berriak zuzendaritza talde gaztearen laguntza izango du. Honako hauek osatuko dute zuzendaritza berria: Anton Iranzo (pesidente ordea), Iñigo Iturbe eta Iñigo Palomino (diruzainak), Jose Luis Insausti, Gurutz Aizpurua, Jon Basurto, Aitor Fdz. de Jauregi, Aitor Alonso eta Jose Luis Romero (bokalak).
Diru kontuei dagokienez, 27.310 eurotako superabita izan du Klubak aurten. 154.616 eurotako diru sarrerak izan ditu eta gastuak 129.633 eurotakoak izan dira.



*Argazkian Klub Deportiboko zuzendaritza zaharra eta berria ageri dira.*

# Agurrak

+ Zarionak Unai Muitozi datorren igandean Enararekin 9 hilabete beteko dituelako. Hain ondo jarrai dezazuten zorte ona opa dizuegu.

*Zorionak **Antonio Conderi** hilaren 13crn urteak bete zituelako. Ondo pascduko zenuela espero dugu, Zure alabo Cristina, Amaia eta emozte Isabelen partez.

+ Zorionak **Sergio Conderi** hilaren Iln urteak bete zilue[oko, Egun ona posa zenuela espero dugu. Cristina eta Arnaiaren parfez.



Zorionak "bibco" hilaren 15ean 6i urte befeko dituzulako. Eboekoen eta bereziki Iraitzen partez.



+ Nola pasatzen den denbora! T4 urte pasafu dira dagoeneko. Zorianak eboekoen eta bereziki Imanolen partez.



Zcionok **Harkaitz** hilaren 9on 12 urte beteko dituzulako. Familia guztiaren partez, eto bereziki arreba Maider eta Eneritzen eta lehengusu Ane, Eider eta Sorairen paitez.



Zorionak Pifxin. Asteazkenean ospatu ez genuenez, beste egun baterako lagako dugu. exekoak.

Zorionak **Haritz** hilaren 17an 7 urte beteko dituzulako, Gurasoen eta bereziki Eñauten partez.



+ Zorionok **Andonii Julene, Olaia** eta familia guztiaren partez.



♦ Zorionak **Elena Larizi** hilaren 12an 8 urte bete zenituelako. Familia osoaren partez.



*Zorionak Juleni hilaren 16an 8 urte beteko dituzulako familia guzbaren partez.



♦ **Zorionak Miren** zure 5. Urtebetetzetta familia osoaren partez. Ondo-ondo paso eguna. Muxu houndi bai.



+ Zorionak **Ibare Barberori zure** 7, urtebefetzean. Aitaren, amaren eta familia osoaren partez.



♦ Zorionak **Maddi,** etxeko guzfion partez 5 urte haundi bete dituzulako.



♦ Zorionak Mariari hilaren 10ean 3 urte bete zibiefako. Guraso, amamo, Juan, lurdes eta bereziki ahizpa Andrearen partez.



• **Zorionak Amaiari hilaren 11n 12 urte bete zituelako** Miriam **eta Nerearen partez.**



* Zorionak **Lorenari** ekainaren 10ean 18 urte bete zituelako. Miriam eta Anderren partez.



*Zorionak **Ander Muge'rzari hilaren 19an 3** urte beteko tuelako. Gorka, amafxo eta altabcoren partez. Aupa Porroix!



♦ **Zorionak Asier Agirre gornezkortari** hilaren 12an 7 urte bete zituelako. Familia osoaren eta bereziki arreba Nekaneren partez.



+ Zorionak **Jon,** hilaren 13an "por **4 urte bete zenituelako. Muxu asko fa-**miliakoen eta bereziki Noraren partez.



*Zorionak **printzesa zure** 6. **urtebetetzean. Muxu bal denon partez, eta berezik1Josuren partez.**



**Unai eta Mari Carmen,** Zorionak zuen ezkontza eguneon. Familiakoen portez.



Zorionak **Joanes eta Maddiri 8 eta** 6 urte betetzen dituztelako. Etxekoen portez.



Zorionak **Fran eta Arrateri, hilaren 12 eta 11n, 22 eta 45 urle bete dituzuelako. Guraso,** arreba eta senarraren partez.

# agendo

## 14, BARIXAKUA
22:15 "Capitan Hambre" antzerkia emanaldia
Taldea: Gaitzerdi Antzerki Taldea
Herriko Antzokian
Sarrera: dohainik

## 15, ZAPATUA
**11:00** Ikastolaren Eguna
Ikastolan
Arratsaldeko 19:30ak arte
16:00 Bilboko manifestaziora joateko autobusak
"Pertsona guztiak, ideia guztiak, proiektu guztiak"
Irteera: Plaza Handitik

## 1 6, DOMEKIA
9:45 Arantzazura erromesaldia
Irteera: Plaza Handitik
10:30 Udal Musika Bandaren kalejira
12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua
Herriko Antzokian
18:45 Gelatxo Orkestrarekin dantzaldia
Plaza Handian.

## 1 8, MARTITZENA
20:00 Kontzentrazioa
"Demokrazia Euskal Herriarentzat eta Stop Faxismoari"
Plaza Handian

## 21, BARIXAKUA
20:00Alkoholiko Anonimoen txarla irekia
Santa Klara konbentuan


ilokatak
Entsaladak
plater konbinatuak
kazuelitak
Razioak
HEMENDIK AURRERA
OSTEGUNETAN
ERE BAI!
*Etorri eta aukeratu!*
Pedro Muguruza 8, behea • Tei. 943 74 19 48


## JAIAK

SAN MIGELDARREN EGUNA
EKAINAK 16, DOMEKIA

11:30 Meza nagusia
Ondoren, salda eta txorizoa.
12:30 San Migeldarren arteko pilota partiduak
14:30 Lagunarteko bazkaria*.
Bazkalostean, alkate ohien omenaldia (Agustin Gurrutxaga, Rafael Arrizabalaga, Agustin Ansola eta Maria Pilar Aranzabal)
Ondoren, dantzaldia Gardokirekin.

*Bazkarirako txartelak Armueta, Ziarda, Sahatsu eta Rafa harategietan, Kalamua Elkartean edo Jabier Arrizabalagari eskatuz lor daitezke.
Prezioa 12 . 6 (gaztetxoak).

URRUZUNO BAILARAKO JAIAK

EKAINAK1 5, ZAPATUA
17:30 txaplioak eta jaien hasiera
Ondoren, meza auzoko lokalean
18:30 trikitilariak
18:30 Edari eta pintxoen banaketa bertaratzen direnen artean
19:30 Haur jolasak
20:30 Anaiarteko afaria

## IKASTAROAK

**Euskara irakasleentzat ikastaroak**

Gure eskualdean AEKn euskara irakasten ikasteko beharrezkoa den glotodidaktika ikastaroa antolatu du lehen aldiz AEK euskaltegiak. lkastaroa, uztailaren lean hasi eta 24an bukatuko da. Eskolak Bergarako Akulu AEK euskaltegian emango dira eta 90 orduko iraupena izango dute. Matrikula egiteko epea, ekainaren 21era arte izango da. Izena emateko edota informazio gehiago behar izanez gero, Plaza Txikian dagoen AEK eustaltegira joan edo 943 74 13 32 telefonora deitu.

## ERROMESALDIAK

**Erromesaldia Arantzazura**

DOmekan, ekainaren 16an, Arantzazura erromesaldia izango da "Corpus Cristi" eguna ospatzen dela-eta. Sigmako zubitik aterako dira erromesak goizeko 9:45ean. Arantzazura ailegatutakoan penitentzia ospakizuna egingo dute 10:55eart. Eguerdiko 12:00etan ospatuko da meza nagusia. 14:00etan ostatuan bazkalduko dute. Bertan dagoen erakusketa ikusteko aukera izango da. Arratsaldeko 17:00etan errosarioa eta agurraren ostean, etxeruntz itzuliko dira. Bazkaria eta autobusaren txartelaren prezioa: 20 euro. Izena Murua gozotegian eman daiteke. Azken eguna bihar, hilak 15, izango da.

## LEHIAKETAK

**San Bartolometako Kartel lehiaketa**

Elgoibarko Udaleko Kultura Batzordeak 2002ko San Bartolome Jaietako Haurren Kartel Lehiaketa antolatu du. Bertan, 18 urtetik beherako elgoibartarrek har dezakete parte. Lanaren neurria eta teknika (argazkia, diapositiba, pintura, marrazkia, collagea...) librea izango da. "Elgoibar, San Bartolome Jaiak 2002" izango da derrigorrez agertu beharreko testua. Lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira, 2002ko uztailaren 4ko, eguerdiko 13:00ak baino lehen. Oinarriei buruzko xehetasun edo informazio gehiago nahi izanez gero Kultur Etxera zuzendu. Telefonoa: 943 74 21 58.

## KONTZERTUAK

**Udal Musika Banda**

Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan, hilaren 16an, Herriko Antzokian. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean, honako pieza hauek joko dituzte: "Ronda en Castilla" (R. Dorado), "Fra Diavolo" (Auber), "Sophisticated Ladies" **(D.** Ellingtort's), "Una noche en Calatayud" (P. Luna), "Jaialdia" (I. Urkizu).

## HITZALMAK

**Alkoholiko Anonimoak**

Alkoholiko Anonimoen Elkarteak txarla irekia antolatu du. Datorren ekainaren 21ean, barixakuan, Santa Klarako konbentuan izango da hitzaldia. Arratsaldeko 20:00etan hasiko da hitzaldia eta joan nahi duen edonor dago gonbidatuta. Elgoibarko Elkarteak 17. urteurrena ospatzen du aurten.

## zine

**KARTELDEGIA**

**ELGOIBAR, Herriko Antzokian**

**"Monsters Ball"**

15, zapatua:19:30-22:15
16, domekia: 19:30-22:15
17, astelehena: 22:15

**EIBAR**
**Unzaga**
**"Infiel"**

7, barixakua: 19:30-12:15
8, zapatua: 17:00-19:30-22:30
9. domekia: 17:00-19:30-22:30
10, astelehena:19:30-22:15
I I, martitzena: 19:30-22:15
12, eguaztena: 19:30-11:15

**Rialto**
**"Invicto"**

7. barixakua: 19:311-11:1.
8, zapatua:17:00-19:30-21:
9. domekia:17:00-19:30-12: t
I 0, astelehena: 19:30-29:
11, martitzena: 19:30-11:15

**BERGARA, Novedades**
**"Rencor"**

7, b 30
8, zapatua: 17:00-19:30-22:15
9, domekia: 19:30-22:15
10, astelehena: 19:30

## ZINEA



"MONSTER'S BALL"
Zuzendaria: Marc Fosten
Antzezteak: Halle Berry, Billy Bob Thornson. Heath Ledger.

Estatu Batuetko hegoaldean kokatzen da istorio hau. Zauritutako bi izakiren arteko amodio harremana kontatzen digu filmeak. Hank, gartzela funtzionari arrazista baten semea da. Berak ere gartzela funtzionario gisa egiten du tan eta baita bere semeak ere. Leticia, berriz, arraza beltzeko emakume txiroa da. Bere senarra aulki elektrikoan hil zuten eta loditasun arazoutk dituen seme baten arna da. Estatu Batuetako hegoaldean bizirik dirauen arrazismoa da filmeko gai nagusia.

2002-V1-14



Aste honetako erretratu zaharra **Ziriako Aizpirik** Iaga digu. Elgoibarko herriak beti izan du musikarako zaletasuna, 1919. Urteko argazki honek frogatzen duen moduan. Garai hartan herriko koru honek Zarzuela abesten zuen. "Molinos de viento" obra egin zuten, holandes jantzita. Gai honen inguruan ez daukagu argibide askorik, baina argazkia ikusten duzuenok, aterako duzue beste daturen bat.

Erretratuan agertzen direnak, hilda egongo dira seguruenik, baina gogora ditzagun beraien izenak: zutik ezkerretik eskumara: Valentin Ansola, Saturnina Ciaran, Angelita Azkue, ezezaguna, Txomin Arrillaga, Pedro Muguruza Jauna, Elisa Ecenarro, Julian karterua, Pako Aizpiri, Angel Guisasola, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna eta Felipe Muguerza.

Jarrita: **Maria Melitongua, Ignacio Bereciartua zuzendaria, Pepita Uncilla, Beatriz Aizpiri, Hipolito Gabilondo, ezezaguna, ezezaguna.**

Lurrean: **Pakita Arrillaga,** ezezaguna, **ezezaguna, Eloy Iriondo, Pepita Iraeta** eta **Federico Iriondo.**



***ESKERTZA***

*2002ko ekainaren 5ean, 87 urte zituela hil zen*
*ABDON MARTINEZ PASCUALen sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



**alokeia, Okel arbia Muturretik Buztanera**

**Giokela, Berme Osoko Okela**

**Gokela, Kalitatezko Okela**




**PATXI URANGA Harategia**
San Bartolome, 30
ELGOI BAR

Ez guk, C

cO

ziurtatu

**Gel jel 1, nura ILCII"**

**KENSINGFONek AURKEZTENDU:**

# Uda 1,kazfaroct,

**ORDUBETE EGUNERO**

**astelehenetik ostiralera**

**I Uztailaren 1 etik-24ra**

**Matrikula egiteko epea ekainaren 25a baino lehen**

*(Ta tale 6at asatzda ptliuffiz 5m4tsoKa*

**KENS1NGTON**
P. Muguruza etorbidea, 8
Tel. 943 74 02 36/ 74 35 12
E-posta: idiomas@kensington-sl.es

# GREZOEK GIDA

itia docgIn t12E[Clchu ITichm9 1,39Tha VZ

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
w 943 74 31 16

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
21 943 74 32 38

**LODOSO**
Leihoak
Ermuaranbide, 16
Ti" 943 74 34 90

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
z* 943 74 36 34

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
z' 943 74 05 47

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
11' 943 74 03 96

## ISOLAMENDUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47, pabiiola
w 943 74 30 94

## ERREFORMA-K eta ,PROIEKTUAle

**ETXEKIT**
Antonio Arrillaga, z/g
n" 943 74 43 47

## ITURGIUMTVA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
943 74 17 61
689 04 92 06

**ONGI**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
z" 943 74 28 80

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
1T 943 74 02 79

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
z' 943 75 50 62
Tr 607 75 50 62

**ZALDUA**
Urasandi, 26
s' 943 74 05 30

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
tr 943 74 07 89
u" 608 14 30 40

## PINTURAK

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
w 943 74 15 52
w 606 43 11 19-20

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
z' 943 74 04 40
13* 607 74 04 40

## PROIEKTUGILEAK

**JESUS MR GABILONDO**
Ubitarte, 4-5 esk.
670 41 20 73

## ELEWIRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
z° 943 74 12 80

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
943 74 12 38

**JOSEBA**
Pedro Muguruza, 29
u" 943 74 09 02
zr 659 93 49 64

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
75* 943 74 13 76

## IGELTSERITZA

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
943 74 34 18

**ASKETA**
Osio, 7 DEBA
13' 629 34 43 89

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
943 74 29 87
679 19 77 47